RESIDENCIAS ENTNAE

Dentro de la actividad **“La escuela creativa”** y con la finalidad de apoyar la creación de espectáculos, el talento artístico y su desarrollo y enriquecer nuestra vida cultural, la ENTNAE pone a disposición de profesionales de las artes escénicas un programa de residencias artísticas tanto de investigación como de creación y técnicas. Un espacio de colaboración en el que se podrá trabajar con las aportaciones de nuestro centro de recursos e instalaciones en la medida de las necesidades de cada proyecto y la disponibilidad de la ENTNAE.

El objetivo de este programa es la cesión de espacios y recursos para el trabajo, para la investigación, para formarse y compartir procesos. Para reflexionar y crear en libertad.

Se pretende poder realizar un mínimo de 5 residencias por año.

Se planteará una convocatoria abierta durante todo el año que será resuelta el 15 de noviembre de cada año.

MODALIDADES

Pueden ser tanto TÉCNICAS, como de CREACIÓN o de INVESTIGACIÓN.

RESIDENCIAS DE INVESTIGACIÓN

Se busca apoyar y fomentar la investigación y experimentación. Estas residencias ofrecen a artistas y personas dedicadas a la creación escénica la oportunidad de desarrollar proyectos innovadores, explorar nuevas formas de expresión y profundizar en su práctica artística.

Recursos: el tiempo y el espacio necesarios para desarrollar y perfeccionar las ideas, así como para el fomento de la interacción y el intercambio de ideas entre colaboradores y artistas.

Duración: variable. Desde semanas hasta meses, dependiendo de la investigación en particular y de ladisponibilidad de la ENTNAE.

RESIDENCIAS DE CREACIÓN

Se busca ofrecer la oportunidad de desarrollar nuevos trabajos y proyectos artísticos en un entorno dedicado y colaborativo. Estas residencias proporcionan un lugar, tiempo y recursos para concebir, ensayar, estrenar y representar sus espectáculos.

Recursos: estas residencias proporcionan un lugar, tiempo y recursos para concebir, ensayar, estrenar y representar sus espectáculos. Asesoramiento artístico del equipo docente de la ENTNAE. Comunicación y difusión del proyecto.

Duración: variable. Desde semanas hasta meses, dependiendo de la investigación en particular y de ladisponibilidad de la ENTNAE.

RESIDENCIAS TÉCNICAS

Dirigidas al desarrollo de propuestas escénicas que se encuentran en la fase final, con el objetivo de poner en pie su trabajo escénico con el apoyo del equipo técnico de la ENTNAE.

Recursos: medios técnicos necesarios para ejecutar el proyecto. Comunicación y difusión de la propuesta.

Duración: la semana del estreno, dependiendo de la disponibilidad de la ENTNAE.

A QUIÉN SE DIRIGE

Se dirige a creadoras y creadores, artistas, compañías o colectivos que trabajan en el campo de las artes escénicas. Podrá presentar solicitud cualquier persona física o jurídica prestando especial atención a creadores y compañías con sede en el ámbito geográfico de la Comunidad Foral de Navarra.

FECHAS Y DURACIÓN

Se podrán desarrollar a lo largo de todo el año según la disponibilidad de espacios de la ENTNAE. La duración es variable, dependiendo de las necesidades de cada proyecto y de la compatibilidad con otras residencias.

QUÉ SE OFRECE

Las residencias contarán con la aportación de espacios y recursos técnicos y humanos para apoyar la concepción, creación y/o la puesta en escena de la obra o proyecto.

Las residencias podrán contar con la colaboración de nuestro centro de recursos en apoyo técnico, apoyo a la difusión, al diseño gráfico, diseño y creación de vestuario, diseño de iluminación, espacio sonoro, escenografía, taller, proyecciones, asesoramientos, centro de documentación, material fotográfico, material audiovisual en la medida de las necesidades de cada proyecto.

Los resultados y procesos de las residencias de investigación podrán ser mostrados ante público. Los espectáculos resultantes de las residencias de creación y técnicas serán presentados con una campaña de información tanto en prensa como en redes sociales y se representarán en nuestro teatro un fin de semana (dos o tres funciones) con el objetivo de afianzar el resultado del proceso creativo. Se valorará la posibilidad de reposición.

De los ingresos finales de taquilla la compañía o artista/s percibirán un porcentaje que oscilará entre el 50% y el 65% dependiendo del número de intérpretes en escena.

CRITERIOS DE SELECCIÓN

1. Interés en la investigación, el desarrollo e innovación del proyecto.
2. La calidad de la propuesta presentada y su coherencia.
3. Adecuación a los medios y espacios de que dispone la ENTNAE.
4. En el caso de haber disfrutado de residencias anteriores, tendrán prioridad quienes no lo hayan hecho en el último año.
5. La proyección y trayectoria de la compañía o artista/s.
6. La proyección de la investigación o del espectáculo.
7. La evaluación de las obras presentadas a residencias de creación y/o técnicas no se basará en su temática.
8. La valoración será realizada por el equipo artístico y técnico de la ENTNAE.

CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN

El hecho de presentarse a esta convocatoria implica reconocer la aceptación de los siguientes compromisos:

- Se solicitará a los colectivos o artistas una actividad de mediación con el objetivo de incentivar el acercamiento de nuevos públicos.
- Se mencionará y publicará en lugar visible en todos los materiales de difusión y comunicación el logotipo de residencias la ENTNAE.
- Los colectivos o artistas se responsabilizan de la originalidad y autoría del proyecto que presenten y garantizan que poseen legítimamente todos los derechos de propiedad intelectual sobre ellos. En caso de que se generen derechos de exhibición pública la ENTNAE abonará un máximo del 10% de los ingresos de taquilla.
- La ENTNAE podrá utilizar la información escrita, audiovisual y gráfica asociada al proyecto seleccionado con el fin de comunicar sus actividades. Los colectivos o artistas deberán informar de la autoría del material gráfico.
- La ENTNAE podrá utilizar imágenes (vídeos, fotografías…) tomadas en el desarrollo de las residencias para su difusión informativa o promocional.
- Todas las personas participantes deberán ser autónomas, estar contratadas o disponer de algún seguro que cubra posibles incidencias durante el desarrollo de la actividad.

DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Deberán cumplimentar la ficha de solicitud que les facilitará la ENTNAE en la cual deberán constar los objetivos y el planteamiento del proceso de trabajo, el equipo participante, la propuesta de fechas y recursos que precisan, etc. En el caso de residencia de investigación se hará especial incidencia en la justificación formal y conceptual del trabajo a realizar. En el caso de residencias de creación y/o técnicas se profundizará sobre el diseño dramatúrgico y de la puesta en escena y su justificación formal.

PRIVACIDAD

La información personal de los solicitantes se tratará de acuerdo con las leyes y reglamentos de privacidad aplicables.

CONTACTO Y PREGUNTAS

Cualquier duda sobre la presente convocatoria se resolverá a través del correo teatro@laescueladeteatro.com.

Los solicitantes deberán aportar un número de teléfono o una dirección de correo electrónico para que la organización pueda ponerse en contacto en caso de duda o de necesidad de más datos.

ENTNAE EGOITZAK

“Sormen eskola” jardueraren barruan, ikuskizunak sortzen, talentu artistikoa garatzen eta gure bizitza kulturala aberasten laguntzeko helburuarekin, ENTNAEk arte eszenikoetako profesionalen eskura egoitza artistikoen programa bat jartzen du, bai ikerketarako, bai sorkuntzarako eta baita tekniketarako ere. Lankidetza-espazio horretan, gure baliabide eta instalazio-zentroaren ekarpenekin lan egin ahal izango da, proiektu bakoitzaren beharren eta ENTNAEren erabilgarritasunaren arabera.

Programa honen helburua ikerketarako, formakuntzarako eta prozesuak partekatzeko lan espazioak eta baliabideak lagatzea da. Hausnartzeko eta askatasunean sortzeko.

Urtean gutxienez 5 egoitza egin nahi dira.

Deialdia irekia egongo da urte osoan zehar eta urtero azaroaren 15ean ebatziko da.

MODALITATEAK:

TEKNIKOAK, SORKUNTZAKOAK edo IKERKETAKOAK izan daitezke.

IKERKETA-EGOITZAK

Ikerketa eta esperimentazioa bultzatu eta sustatu nahi dira. Egoitza hauek proiektu berritzaileak garatzeko, adierazpen modu berriak esploratzeko eta beren praktika artistikoan sakontzeko aukera eskaintzen diete artistei eta sorkuntza eszenikoan aritzen diren pertsonei.

Baliabideak: ideiak garatu eta hobetzeko, eta baita kolaboratzaileen eta artisten arteko elkarrekintza eta ideia-trukea sustatzeko beharrezkoak diren denbora eta espazioa.

Iraupena: aldakorra. Astetik hilabeteetara, ikerketaren eta ENTNAEren erabilgarritasunaren arabera.

SORKUNTZA-EGOITZAK

Lan berriak eta proiektu artistikoak garatzeko aukera eskaini nahi da, ingurune dedikatu eta kolaboratibo batean. Egoitza hauek leku bat, denbora eta baliabideak eskaintzen dituzte beren ikuskizunak sortu, entseatu, estreinatu eta antzezteko.

Baliabideak: egoitza hauek leku bat, denbora eta baliabideak eskaintzen dituzte sortzeko, entseatzeko, estreinatzeko eta ikuskizunak antzezteko. ENTNAEko irakasle-taldearen aholkularitza artistikoa. Proiektuaren komunikazioa eta hedapena.

Iraupena: aldakorra. Astetik hilabeteetara, ikerketaren eta ENTNAEren erabilgarritasunaren arabera.

EGOITZA TEKNIKOAK

Bukaera fasean dauden proposamen eszenikoak garatzera zuzenduta daude, beren lan eszenikoa aurrera ateratzeko helburuarekin, ENTNAEko talde teknikoaren laguntzarekin.

Baliabideak: proiektua gauzatzeko beharrezko baliabide teknikoak. Proposamenaren komunikazioa eta hedapena.

Iraupena: estreinaldiaren astea, ENTNAEren erabilgarritasunaren arabera.

NORI ZUZENDUTA DAGO

Arte eszenikoen arloan lan egiten duten sortzaile, artista, konpainia edo kolektiboei zuzenduta dago. Edozein pertsona fisiko edo juridikok aurkeztu dezake eskaera, arreta berezia eskainiz Nafarroako Foru Erkidegoaren eremu geografikoan egoitza duten sortzaile eta konpainiei.

DATAK ETA IRAUPENA

Urte osoan zehar garatu ahal izango dira, ENTNAEren espazioen erabilgarritasunaren arabera. Iraupena aldakorra da, proiektu bakoitzaren beharren eta beste egoitza batzuekiko bateragarritasunaren arabera.

ZER ESKAINTZEN DA?

Egoitzek espazio eta baliabide teknikoen eta giza baliabideen ekarpena izango dute, ikusmolde, sorkuntza eta/edo obra edo proiektua eszenaratzen laguntzeko.

Egoitzek gure baliabide-zentroaren laguntza eduki ahal izango dute laguntza teknikoan, difusioan, diseinu grafikoan, jantzien diseinu eta sorkuntzan, argiztapen-diseinuan, soinu-espazioan, eszenografian, tailerran, proiekzioetan, aholkularitzan, dokumentazio-zentroan, argazki-materialean, ikus-entzunezko materialean, proiektu bakoitzaren beharren arabera.

Ikerketa-egoitzen emaitzak eta prozesuak jendaurrean erakutsi ahal izango dira.

Sorkuntza-egoitzetatik eta tekniketatik sortutako ikuskizunak prentsan zein sare sozialetan informazio-kanpaina baten bidez aurkeztuko dira eta asteburu batean (bizpahiru emanaldi) gure antzokian antzeztuko dira, sormen-prozesuaren emaitza sendotzeko helbururekin. Birjartzeko aukera baloratuko da.

Leihatilan lortutako diru-sarrera kopurutik, konpainiak edo artistek %50 eta %65 bitarteko portzentajea jasoko dute, eszenako antzezle kopuruaren arabera.

HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

1. Proiektuaren ikerketan, garapenean eta berrikuntzan interesa izatea.
2. Aurkeztutako proposamenaren kalitatea eta koherentzia.
3. ENTNAEk dituen bitarteko eta espazioetara egokitzea
4. Aurreko egoitzetan parte hartu izan badute, azken urtean egin ez dutenek izango dute lehentasuna.
5. Konpainiaren edo artistaren proiekzioa eta ibilbidea.
6. Ikerketaren edo ikuskizunaren proiekzioa.
7. Sorkuntza egoitzetara eta/edo egoitza teknikoetara aurkeztutako obren ebaluazioa ez da haien gaian oinarrituko
8. Balorazioa ENTNAEko talde aritstiko eta tenikoak egingo du.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezteak honako konpromiso hauek onartzea dakar berekin:

- Kolektibo edo artistei bitartekaritza-jarduera bat eskatuko zaie, publiko berrien hurbilketa sustatzeko helburuarekin.
- ENTNAEren egoitzen logotipoa hedapen- eta komunikazio-material guztietan aipatu eta argi ikusteko moduan argitaratuko da.
- Kolektiboek edo artistek beren gain hartzen dute proiektuaren originaltasunaren eta egiletzaren ardura, eta jabetza intelektualeko eskubide guztiak beren gain dituztela bermatzen dute. Erakusketa publikoko eskubideak sortuz gero, ENTNAEk leihatilako diru-sarreren %10 ordainduko du gehienez.
- ENTNAEk aukeratutako proiektuari lotutako informazio idatzia, ikus-entzunezkoa eta grafikoa erabili dezake bere jardueren berri emateko helburuarekin. Kolektiboek edo artistek material grafikoaren egiletzaren berri eman beharko dute.
- ENTNAEk egoitzen garapenean zehar hartutako irudiak (bideoak, argazkiak…) erabili ahal izango ditu informazioa edo sustapena zabaltzeko.
- Parte hartzaile guztiek autonomoak izan beharko dute, kontratatuta egon beharko dute edo jardueraren garapenean gerta daitezkeen intzidentziak bere gain hartzen dituen asegururen bat izan beharko dute.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

ENTNAEk beraien esku jarriko duen eskaera-fitxa bete beharko dute eta bertan, lan-prozesuaren helburuak eta planteamendua, parte hartzen duen taldea, behar dituzten daten eta baliabideen proposamena, eta abar jaso beharko dira. Ikerketa-egoitzaren kasuan, egin beharreko lanaren justifikazio formal eta kontzeptualan arreta berezia jarriko da. Sorkuntza-egoitzen eta/edo egoitza teknikoen kasuan, diseinu dramaturgikoan, eszenaratze diseinuan eta honen justifikazio formalean sakonduko da.

PRIBATUTASUNA

Eskatzaileei buruzko informazio pertsonala aplikagarri diren pribatutasun-lege eta –erregelamenduen arabera tratatuko da.

KONTAKTUA ETA GALDERAK

Deialdi honi buruzko edozein zalantza argitzeko teatro@laescueladeteatro.com posta elektronikora idatzi.

Eskatzaileek telefono zenbaki bat edo helbide elektroniko bat aurkeztu beharko dute, zalantzarik izanez gero edo datu gehiago behar izanez gero haiekin harremanetan jartzeko.